


BALOREZKO PROPOSAMENA

Gaur egungo merkatuan, guk sortutako asmakizuna ez da existitzen. Badaude helburu berbera duten aplikazioak, baina gure produktua efizienteagoa, azkarragoa eta errazagoa da. Beraz, esan daiteke gure produktua berrikuntza bat dela, ez dagoelako honen antzeko produkturik. Gure produktuak erabilerraztasunaren balioa du baita ere.

Oso erraza da gure eskumuturrekoa erabiltzea. Botoi bat sakatzean automatikoki seinale edo mezu bat bidaltzen da pareko eskumutur batera. Horrela beste pertsonak arazoak daudela jakin dezakete. Produktu hau etorkizuneko produktua



da. Gure ustez, jende askorentzat erabilgarria izango da. Gure produktua segurtasuna eskaintzen du eguneroko bizitzan. Izan ere, gaur egun, beldurtasuna dela eta, emakume zein gizon askok kalera ez dira irteten.

Produktu honekin, beldurrik gabe edonork kalera atera daiteke. Urte honetan Espainian aurkitu ahal dugun kriminalitate maila “SER” irriaren arabera 4,3% baino handiagoa da 2018-ren datuekin konparatuta, horregatik gero eta garrantzitsuagoa da segurtasuna eukitzea kaletik joaten zarenean. Guk sortu dugun sistemarekin, jendea seguru ibili daiteke kaletik, beldurrik barik. Gainera pertsona horien familiak trankil egon daitezke gaua bada eta kaleak hutsik badaude, adibidez.